



IRENE NEMIROVSKY (Kiev 1903-Auschwitz 1942)

Judu familia aberats batean jaio zen. Haurtzaro bakartia izan zuen Irenek, zaintzen zuen haurtzaina lagun bakar. 1917an iraultza sobietarra gertatu zenean, familiak Moskura alde egin zuen lehenik eta handik Finlandiara, azkenean Frantzian porturatzeko.

Oro har, Irenek nerabezaro zoroa eduki zuen: festa, harreman eta amorante ugarirekin. 1929an, hogeita sei urterekin *David Golder*, bere lehen liburua argitaratu zuen, arrakasta nabarmena erdietsiz. Hurrengo urteetan, Frantzian, sona handieneko argitaletxeetan eman zuten argitara bere lana, eta hainbat hizkuntzetara itzuli zuten.

1940an juduen estatutua indarrean jartzearekin batera Irenek arazoak izan zituen: argitaletxe frantsesek katalogoa “arazteari” ekin zioten eta, ondorioz, ezin izan zuen ezer argitaratu, eta argitaratutako urria izengoitiarekin egin zuen. 1942an jendarmeeek atxilotu eta Pithiviersko kontzentrazio-esparrura eraman zuten. Hurrengo egunean Auschwitzeroa eraman eta handik gutxira erail zuten naziek. Hainbeste idazlek bezala, errekonozimendua batez ere hil ostean lortu zuen Nemirovskyk, batik bat 2004an Frantzian *Suite française* izena hartu zuen eskuizkribua argitaratu zenetik.

Irene Nemirovsky

Dantzaldia



Izenburua: Dantzaldia
Jatorrizko izenburua: Le bal
Egilea: Irene Nemirovsky
Euskaratzailea: Eider Rodriguez
Azalaren eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

Argitaratzea:

Txalaparta argitaletxea E.M.
Navaz y Vides karrika, 1-2
78. posta-kutxa
31300 Tafalla
NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Faxa 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

**Txalapartaren lehenengo
argitaraldia**

Tafalla, 2006ko maiatza

**Txalapartaren bigarren
argitaraldia**

Tafalla, 2007ko abuztua

Copyright

© Txalapartak

© Irene Nemirovskyk

© Eider Rodriguezek

Diseinu Grafikoa

Nabarrera

Argitalpen Kudeaketa

Inprimaketa

RGM

ISBN

978-84-8136-455-2

Lege Gordailua

BI-2635-07



HITZAURREA

Bere argazkirik ezagunenean, bisoiz jantzita agertzen da Irene Nemirovsky, ilea uhinetan finkaturik, sudur handia haragi tanta batean bukatua, begizulodun begiratua, bekainak kaioturik. Edonola ere, erretratu guztietan agertzen da irriz.

Nemirovskyk Hendaian, Donibane Lohizunen eta Miarritzen denboraldi luzeak igarotzen zituen, idazten eta eguzkia hartzen. Hendaian, *Ene etxea* deituriko etxean, hondartza aurrean. Hemen ikasi zuen euskaraz, egoki gainera, ulertu eta hitz egiteko gai baitzen. Alaben lekukotzaz gain, Emmanuel Radnitzkyk

(Man Ray izenez ezagunagoa) idatzitako gutuna dago. Ezagun da Man Rayk *Emak bakia* izeneko filma errodatu zuela Lapurdiko kostaldean. Duela gutxi aurkitutako gutun bartzuen artetik, A.C. inzialak dituen emakume ingeles bati zuzendutakoak piztu digu interesa. Bertan, euskararen edertasuna aipatzeaz gain, hizkuntza bera ikastera animatzen du, «jende argiarentzat erraza baita ikasten». Horren adibide, Nemirovsky abizeneko neska baten kasua ipintzen dio. 1926. urtea zen.

Nemirovskiren jaiotza istripu hutsa litzateke, idazle bezala hilezkor egin ez balitz. Izan ere, modu berezian munduratu zen, eta are eta modu bereziagoan hil: senar aberatsari plazer emateagatik izan zuen amak, eta neskatoaren jaiotza bere emetasunaren gainbeherarekin lotu zuen beti. Oroitzapen horiek uxatzeko, ez zuen alaba begien aurrean nahi izaten. Ireneren amak orduak eman zitzakeen ispilu aurrean aurpegia konpontzen eta margotzen, ileak lisatzen, masajeak hartzen. Gaztetasunaren abandonoa eskuekin gelditzeko eginahalek deprimitu egin zuten, batez ere jabetu zenean gigoloek bakarrik ase zezaketela, hitzez zein

haragiz. Irenek hori guztia gogorarazten zion, horregatik ez zuen ikusi nahi izaten.

Idazlearen bizitzak zein heriotzak eragin nabarmena izan du bere obran. Heriotzak ere bai, ez dut gaizki esan: izan ere, bere lana gaur egungo begiekin irakurriz, antzeman daiteke patua dagoela izkiriaturik berak idatzitako le-
rroen tolesduretan. Bizitza literarioa izan zuen, eta literaturarentzat bizi izan zen. Heriotza ere ez zuen prosaikoagoa izan: gasa arnasaraziz erail zuten, Auschwitz. Batzuetan gertatzen da idazlearen bizitza lana baino interesgarriago suertatzen dela. Ez da Nemirovskyren kasua, ordea. Bizitza literarioa izan arren, literatura zuen bizitza.

Irene Nemirovsky Kieven sortu zen, egun *yiddishland* izenez ezagutzen den lurraldean, 1903ko otsailaren 11n. Bai amak eta bai tutoreak ere frantsesez egin zioten, eta hizkuntza horretan idatzi zuen beti. Euskaraz gain, jario bizia zuen errusieraz, polonieraz, ingelesez eta suomieraz, eta yiddisha ulertzeko gai ere bazen. Gurasoek ez zuten alabaren zaintza euren gain hartu nahi izan, eta haurtzainak hezi zuen Irene, koskortu arte. Aitak, bankaria baitzen, negozioak kudeatzen eta bidaiatzen ematen zuen

denbora gehien, edota kasinoetan, erruletari eraginez. Amari buruz jardun gara lehenago.

Nemirovskyren lanetan, ama-alaben arteko harremanen gaia errepikatzen da, hala *Dantzaldian*, nola *Le vin de solituden* (*Bakardadearen ardoa*). Idazleak euren biografiaren eta bizi duten egoeraren katalizataileak badira, Nemirovskyren kasuan ezin modu gardenagoan gertatzen da hori: kultura juduaren baitan hazi eta hezia, begirada kritikoz jardun zen judaismoaren gainean. Nemirovskyk, bere liburuetan juduen estatus igoera deskribatzen duenean, gogortasun handiz marrazten ditu haien profilak, nahiz eta badakien, nolabaiteko iragarle sen ezkutuz, «patu komuna konpartitzen» zutela. Izan ere, begi ertzetik begiratzen zion kultura juduari, diruarekin eta bestelako jabetzekin zuen harreman zekena zela medio. Aberats berrien izaera likitsa zitzaion, eta hori ere islatzen du bere lanean. Alta, nola ezkondu aurretiko bere bizi-moldea, hala ezkondu ostekoa ere, burgesak izan zituen: Errusian bizi zela, denboraldi luzeak igarotzen zituen Lapurdiko kostaldean, Krimen eta Kostalde Urdinean.

1917ko Urriko iraultzarekin, Ireneren aitak, bere jabetzak zein bizia arriskuan ikusita,



Moskura ihes egin zuen sendiarekin, ofizial batek alokairuan utzitako apartamendu txiki-
ra. Ofizialaren liburutegia maiztu zuen Irenek,
gauzez eta egunez. Leihoaren beste aldean obu-
sek eztanda egiten zuten artean, hamalau urte-
ko neskatoak irakurri egiten zuen. Huysman,
Maupassant eta bizi osorako iltzaturik gelditu-
ko zitzaion Oscar Wilderen *Dorian Grayren*
erretratoa, esaterako. Handik Finlandiara joan
ziren, eta hilabete batzuen buruan, atoiontzi
batean sartu eta hamar eguneko bidaia egin
zuten. Lurra ukitu ahal izan zutenean, Roue-
nen ziren.

Frantzian bizi zenean, Irenek irri karkailaz
betetako bizimodu zaratatsua eraman zuen:
1924ko urtarrilaren 24an, lagun bati idatzi zion:
«Asteburu zoroa izan dut: dantzaldirik dantzal-
di; oraindik apur bat hordituta nago eta nire be-
tekizunetara itzultzea kosta egiten zait». Nizan
sinaturiko beste gutun batean, beste hau dio:
«Zoro baten moduan nabil atzera eta aurrera,
eta horrek lotsarazi egin beharko ninduke. Egu-
nero egiten dituzte festa txairoak inguruko ho-
teletan, eta nire zorte onak gigolo batzuekin
sartu nau». Nizatik bueltan, ostera: «Choura ni
ikustera etorri zen eta bi orduko errieta egin zi-

dan: dirudienez, gehiegi flirteatzen dut, eta ez da polita mutilak horrela txorazarzea... Dakizunez, Henryrekikoak amaitu ditut, eta lehengo batean ni ikustera etorri zen, zurbil, begiak atera beharrean, gaizto aurpegiarekin eta pistola bat patrikan zuela!».

Zorabio ezti haren erdian ezagutu zuen Mijail, Michel Epstein, «azal oso iluneko beltzarantxo bat». Fisikan eta elektrikan ingeniari, Pays du Nordeko bankuko ahalduna, 1926an esposatu ziren Irene eta Mijail.

Bernard Grasset argitaratzaileak eskuizkribu bat jaso zuen postan 1929. urtean. Eleberri bat zen. Egileak ez zuen izen-abizenik jarri, postakutxa bat soilik. Grassetek, berehala iragarki bat jarri zuen prentsan gizon misteriotsu hari elkar ezagutzeko gonbita eginez. Handik gutxira, Irene Nemirovsky argitaratzailearen lantokian azaldu zenean, Graseti kostea egin zitzaion sinestea itxura bizizaleko emakume gazte eta alai hura *David Golder* eleberri gordin, eder eta batez ere maisuki eraikitako haren egilea izan zitekeenik. Argitara eman bezain pronto, kritikak txalotu egin zuen Frantziako Estatuan hamar urte soilik zeramatzan idazle haren liburua. Hamalau urterekin

hasi zen idazten Irene Nemirovsky. Ivan Turgenieven idazketa estiloan oinarrituriko teknika garatu zuela zioen. Eleberri bati ekiten zionean, ez zuen soilik kontakizuna idazten, kontakizunak gogora ekarritako oro baizik, izan pertsonaien inguruko iritziak, haien kronologia zehatzak, nolakoa izan ote zen haien nerabezaroa, paisaia baten deskribapena, eta abar. Guztia idazten zuen, bazterrean ezer utzi gabe. Ondoren, nobelaren alderdi guztiak zehazturik zituela irizten zionean, bi lapitz gorri eta urdin erabilia, gorde beharreko esaldiak azpimarratzen zituen. Batzuetan nahikoak zitzazkion lerro gutxi batzuk orri zirimolaren erdian. Jarraian, eleberria bilbatzeari ekiten zion, eta, azkenik, behin betiko bertsoa idazten zuen, beste kaiera batean. Aurrerantzean, Frantzian, sona handieneko argitaletxeetan emango zuten argitara haren lana, eta hainbat hizkuntzatarara itzuliko zuten.

David Golder osatuko zuten bi kapituluren artean izkiriatu zuen *Dantzaldia* Nemirovskyk, etenik gabe idatzi ere. Harribitxia da, hasperen bati buruzko tratatua dela esan daiteke. Eleberri labur baina sakon honetan, gogoia torturatzen zioten gaiak erabili zituen: ama-alaben arteko

harremanak, aberats berriak, diruaren likitsa, kultura judua eta mendekuaren arma. Idazleak zurian astirik galdu gabe idatzi zuen *Dantzaldia*, gatazkaren muina luma puntaz ziztatuz, odolentan utzi arte. Idazleak handi bilakatzen dituen hori egitea lortzen du Nemirovskyk: historian zehar, herri, etnia, belaunaldi, zoko, geografia eta mende guztietan errepikatzen diren gertaera mitikoak pertsonalizatzen (Kampf senar-emazteak eta haien alaba Antoinette), geografia zehatz batean (Parisen) eta kronologia jakin batean (1920ko hamarkadan) finkatzen ditu. Era horretan unibertsal eta atemporal bilakatuz bere kontakizuna. Bere kontakizunak. *Dantzaldia* komaz eta eten puntuz beteriko narrazioa da, eta, ondorioz, erritmo berezia du. Burtsaren *cracka* jazo baino urtebete lehenago eta nazismoak garaipena lortu baino lau lehenago idatzia dagoela jakiteak gizendu egiten du eleberrian deskribaturiko atmosfera, zamatutu xaloak izan zitezkeen ñabardurak.

Hamahiru eleberri idatzi zituen arren, *Dantzaldiarekin* egin zen ezagun. Alta, duela bi urte arte, ez zen idazle handien zerrendan ageri. 1940ko urrian, juduen lehen estatutuarekin batera, juduak paria izatera pasatu ziren. Irene-



ren senar Michel Epsteinek Pays du Nord-eko bankuan lan egiteari utzi behar izan zion, eta Ireneri dagokionez, argitaletxe frantsesek katalogoa «arazteari» ekin zioten. Ezin zuen argitaratu idazten zuen ezer, eta argitaratzen zuen apurra izengoitiarekin egiten zuen. 1941 eta 1942an, *Chejoven bizitza* eta *Udazkeneko euliak* idatzi zituen. Baina liburuok ez zuten 1957a arte argia ikusiko. Urte horietan ekin zion *Suite française* bataiatuko zuten liburuari ere. Parisen bizi zenean, kanpokoari usain hartuta, 1942an, bere kaiera batean idatzi zuen: «Frantsesak emazte zahar batez bezain gogaiturik zeuden Errepublikaz. Haientzat, diktadura, desleialtasun bat baino ez zen, parranda jotze bat. Emaztea engainatu nahi zuten, ez erail. Orain, haien Errepublika hilotz ikusita, haien askatasuna hilik, negar egiten dute... Frantzian, urte batzuetatik hona, klase sozial jakin baten baitan egiten den guztiak motibazio bakarra dauka: izua. Gerrara, porrotera eta egungo bakera eramantzen gaitu. Leinu honetako frantsesak ez du inorenganako gorrotorik sentitzen; ez jeloskeriarik, ez askonahi zikiraturik, ezta mendeku gogo benetakorik ere. Izuak akabatzen dago».

Urte horretan bertan, jerdarmeeek etxean atxilotu zuten Irene. Uztailaren 16an Pithiviers-ko kontzentrazio esparruan sartu eta biharamunen Auschwitzera eramán zuten. Birkenauen bakartu eta gero, abuztuaren 17an erail zuten. Senarrak hamaika ahalegin egin zuen, argitaratzaileak bitartekari gisa erabiliz, eta Petain mariskalari zuzenean idatziz Irene askatu edo beragatik ordezká zezaten eskatuz. Keinu guztiz erromantikoa izan zen, zinez, eta xalóa agian. Baina Michel Epstein ere 1942ko azaroan atxilo eramán eta Auschwitzera ailegatu bezain pronto akabatu zuten. Atxiloketa agiriak dioenez, 8.500 libera konfiskatu zizkioten. Jarraian bi alaben xerka abiatu ziren jendarmeak, baina ihes egitea lortu zuten. Jazarpenak hilabeteak iraun zuen arren, hamar eta bost urteko alabek eta haien tutoreak onik gorde zuten amak emandako maletatxoa: familia argazkiak eta Ireneren azken eskuizkribua zegoen, Frantzia ezgaitu, garaitu, okupatu, gosetu, saldu baten erretratu bukagabea. Orain gutxi arte ez ziren irakurtzera ausartu, zer aurkituko zuten beldur. Baina Ireneren alaba Denisek –Tolosan bizi da, Okzitanian–, eskuizkribua eleberri bat zela ohartuta, argitaratzailearen eskuetan utzi zuen. *Suite française* izena jarri zioten liburuari, eta 2004an argitaratu

zen liburu berri honi esker, Nemirovskyren lan osoa berrirakurtzen ari dira munduan.

Maletatxoan zegoen argazkietako batean, katu beltz batekin agertzen da Irene Nemirovsky, Hendaiaiko *Ene Etxe*ako atarian, seguru-eruenik. Naziek erail izan ez balute, agian ezagutuko genukeen, agian Hendaiaiko hondartzan ikusi izango genukeen, berak maite zuen bezala, koadernoan belaun gainean, lumarekin zurira bitarteko distantzia neurtzen. *Beignet* saltzaile baten garrasiek asaldatuko zuketan eta lasterka ondotik igarotako surflari batek hondarrez zipriztinduko ziokeen orrazkera, erail izan ez balute. Elkarrizketak egingo genizkiokeen eta berak erantzun, urrutiko ebakerak kargaturiko euskaraz.

Eider Rodriguez



Kampf anderea ikasketa gelan sartu zenean, hainbesteko indarrez itxi zuen atea, ezen argi-armiarmaren hotsa entzun baitzen, aire korronteak inarrositako zintzilikarioen txin-txarri hots garbi eta apala. Baina Antoinettek ez zion irakurtzeari utzi, eta hain zegoen konkortuta idazmahaiaren gainean, ilearekin orria ukitzen zuen. Amak une batez aztertu zuen begiradaz, hitzik esan gabe; ondoren aurrean paratu zitzaion, eskuak bularraren gainean gurutzaturik:

—Keinuren bat egingo bahu bederen ama ikusterakoan, ume –egin zuen oihu–. Ipurtal-

dea aulkira itsatsita al dun? Hirea bai dotorezia... Non dago Betty andereñoa?

Ondoko gelan, josteko makina baten zarata entzuten zen, abesti baten erritmoak lagunduta, *What shall I do, what shall I do when you'll be gone away...* ahots trakets eta gazte batek nahi gabe abestuko balu bezala.

—Andereño! —deitu zion Kampf andereak—. Etor zaitez hona.

—*Yes, Mrs. Kampf.*

Ingeles gaztea, masailak gorriturik, begiak izu eta gozo, ezti koloreko mototsa buru txiki eta biribilaren inguruan kiribilduta, ate zirrikitutik labaindu zen.

—Nire alaba barrandatu eta hezteko kontratatu zaitut, bai? —hasi zen tinko Kampf anderea—. Ez zure soinekoak jos ditzazun... Antoinettek ez al daki zutitu egin behar duela bere ama sartzen denean?

—*Oh! Ann-toinette, how can you?* —esan zuen andereñoak, txio hits moduko batez.

Antoinette, zutik jarria zen ordurako, kulkunka baldarrean zebilen zango baten gainean.

Hamalau urteko neskato luzanga eta laua zen, adin horretan ohikoa den aurpegiera zurbila zuen, hain gordina, helduen begietara tanto huts bat zirudien, hazpeirik gabekoa... betazal eroriak zituen, betzuloak, aho ttipi gotorra... Hamalau urte, bularrak ikasle-soineko estuaren azpitik hazten, gorputz ahula zauritzen eta gogaitzen, ume gorputza... oin handiak eta agian egun batez, nork daki?, munduko besorik ederrrenak izango diren esku gorrietan bukatu-rikoko tutuak, esku gorrietarainokoak, hatzak tintaz zikindurik... garondo hauskorra, ilea labur margula, lehorra eta lausoa...

—Ez dun ulertzen, Antoinette, neska gajoa, hire manerak nire onetik ateratzeko modukoak ditun... Eser hadi. Berrero sartuko naun, eta hi instantean jaikitzearen plazera emango didan, ulertzen?

Kampf andereak atzera ibili zituen pauso batzuk eta bigarren aldiz zabaldu zuen atea. Antoinette geldoki zutitu zen, eta halako gogo faltaz, amak, ezpainak estu eta mehatxagarri, irmotasunez egin zion galde:

—Menturaz, gogaitu egiten haut, andereño?

—Ez, ama —erantzun zion Antoinettek ahots apalez.

—Orduan, zer dela eta mutur hori?

Antoinettek irribarre egin zuen begitartea itsustu zion ahalegin arin eta astun batez. Bartzuetan hainbestekoa zen helduei zien gorrotoa, ezen hil nahiko zituzkeen, desitxuratu, garrasi egin: «Aspertu egiten nauzu, gogaitu», lurraren kontra ostikoak emanez; baina guraso-en beldur zen haurtzarotik. Lehen, Antoinette txikiagoa zenean, amak belaunen gainean hartzen zuen maiz, bihotzaren kontra estaturik laztantzen eta besarkatzen zuen. Baina Antoinettek ahaztuta zuen hura. Alta, bere barren-barranean gordeta zituen buru gainetik igarotzen zitzaizkion ahots erretxin baten soinu leher-tuak, «beti nire altzoan neskatxa hau...», «nire soinekoa kakaztu dun hire zapata zikinekin!, segi zokora, horrela ikasiko dun, entzun didan?, inozo alaena!», baita esaldi hura ere, egun batez —bizitzan lehen aldiz egun hartan izan zuen hiltzeko gogo—, kale kantoï batean, errieta batean erdian, haserreak puztua, hain ozen oihukatua, ezen oinezkoak jiratu egin baitziren: «Zaplazteko bat nahi dun? Bai?», eta zaplazteko haren erredura... kalearen erdian. Hamaika urte zi-

tuen, handia zen bere adinerako. Oinezkoak, pertsona handiak, hori gutxienekoa zen... Baina istant berean, mutiko batzuk eskolatik irten ziren eta barre egin zuten ikustean: «Aizan, neska...». Burumakur, udazkeneko kale beltzetan barrena ibilian zihoan bitartean, erasan egin zion iseka anker hark. Argiak dantzan ari ziren bere malkoetan. «Oraindik zaputzetan?... Hirea bai izaera! Hi gobernatzen saiatzen naun, hire on beharrez, ba al dakin? A, eta ez berriro hasi nire onetik ateratzen gero, egidan kasu»... Nazkanteak... Eta orain, oraindik ere, berariaz, min emateko, torturatzeko, umiliatzeko, goizetik gauera ez zioten bakerik ematen: «Baina, baina, sardexka heltzeko modu hori?» (mirabeen aurrean, Jainkoarren) eta «zuzen jar hadi, gutxienez, ez egin konkordunarena». Hamalau urte zituen, neskatxa bat zen, eta, bere ametsetan, emakume maitatu eta eder bat... Gizonek ferekatzen zuten, miresten zuten, Andre Spere-lik Helene eta Marie laztantzen zituen bezala, eta Suberceaux-eko Julienek Maud de Rouvre liburuetan... Maitasuna... Aztoratu egin zen. Azkenean, Kampf andereak esan zuen:

—Eta uste badun ingeles bat ordaintzen dudala hire manera horiekin jarraitzeko, tronpatuta hago, laztana...

Alabaren kopeta eteten zuen adatsa atontzen ari zen bitartean, apalago esan zion:

—Ahaztu egiten zain beti, Antoinette: gaur egun aberatsak gaitun!

Ingelesarengana jiratu zen:

—Andereño, mandatu asko egin beharko dituzu asteon... dantzaldi bat emango dut 15ean...

—Dantzaldi bat —murmurikatu zuen Antoinettek begiak zabal-zabalik.

—Bai ba —esan zuen Kampf andereak irribarre eginez—, dantzaldi bat...

Antoinetteri begiratu zion harrotasunez; gero, disimuluan begitarte zimituz, ingelesa seinalatu zion:

—Ez hion ezer esango, ezta?

—Ez, ama —esan zion Antoinettek bizitasunez.